

MEMORIA

2018

LIBURUTEGIAK



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN



donostia
kultura



Erakustokia, Liburutegi Nagusia

Donostiako liburutegien sarea **irakurketa sustatzeko** egin duen indarragatik nabarmendu da 2018an; batez ere hamalau urte arteko haurren artean, baina helduak ahaztu gabe. Donostian gure liburutegiek duten bereizgarria aldarrikatu nahi dugu, **“irakurketa publikoa”**.

Antonio Basanta irakurketaren AD-Naz ari da *Leer contra la nada* liburuan, eta gure udal sareak bere egiten ditu haren hitzak, gogoratuz ezen irakurleen gizartea egiten saiatzea dela gure betekizun nagusia.

Katalogazio-lan teknika nabarmen handitu da. Asko lagundu dugu liburuak Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarerako katalogatzen, sare horretan baikaude duela bi urtetik. Beti katalogatu izan dugu, baina orain gure zeregin horrek EIPSeko sare guztiei egiten die mesede, horra aldea.

Zenbakietan islatzen da egindako lanaren tamaina; guztira, **14.675 katalogazio**.

SAREA ZENBAKITAN

Liburutegiaren erabilera-datuak positiboak dira. Liburutegien errendimendua alderdi guztiak aztertuta neurtzen da: ordutegia, eraikina, funtsak..., baina **bisiten eta maileguen datuak dira adierazlerik garrantzitsuenak**.

Guztira, **433.973 mailegu egin ditugu**. **Gora egin dugu haurrentzako liburuaren maileguan, %2,5**.

Mailegutun, gora egin dute Haur Liburutegi Nagusiak, Egiako Liburutegiak, Intxaurren eta Larrotxenekoak, Loiolakoak eta Musika eta Dantza Eskolako Liburutegiak. Liburutegi Nagusiak egiten du mailegu gehien, eta oso martxa handian jardun du 2018an ere: **108.187 mailegu**.

2,3 mailegu biztanleko (186.667 biztanle 2016an): datu horrek Europako batezbestekotik gertu kokatzen gaitu (3-4 mailegu biztanleko).

2017arekin alderatuta, ikusten da maileguak gutxitu egin direla zenbaki absolututan, 27.026, hau da, %5,8 gutxiago. Beheraldi hori **bi gertaerari** zor zaie:

Ernest Llucheko liburutegiak, Real Sociedaden futbol-zelaiaren berritzelanak direla-eta, behin behineko zerbitzua eskaini du Arcco merkataritzaguneko areto batean. Liburutegi horren errendimenduaren beheraldia 25.916 mailegukoa da, hau da, iaz baino %43 gutxiago.

Sareko beste liburutegi garrantzitsua bat, Okendokoa, itxita egon da hila-bete eta erdiz, instalazioetan zituen arazo batzuk zirela-eta. Beheraldia, zenbaki absolututan, 5.824 mailegukoa da, hau da, %8,8.

Euskarrikako maileguari begiratuz gero, haurrentzako liburuak gora egin du liburutegi guztietan, eta beste liburuak Alderdi Eder, Aiete, Lugaritz, Intxaurren eta Larrotxenekoetan. Beherakada DVDen maileguan dagoen joera berri bati zor zaio. Aldaketa bati antzeman zaio zinekontsumoan, streaming-platafomak direla-eta (Netflix, Amazon Prime eta HBO Go).

Donostiarrak, etorri, etortzen dira liburutegietara, baina beherako joera nabari da denetan: **817.172 bisita izan**

ditugu; 2017koekin alderatuta, 84.793 bisita gutxiago dira (%9,4 gutxiago). Amarako liburutegiak jasan du hori gehien, 63.585 bisita gutxiago izan baititu.

Liburutegietako funtsak etengabe eguneratzen dira.

2018an, 44.955 dokumentu erosi ziren. **Berritze-kuota** %7,98koa da; %10era iristea dugu helburu.

83.316 bazkide daude izena emanda, hots, %6,38 egin du gora kopuruak. Donostiako biztanleen %44,79k txartela du.

Erabiltzaileentzako liburutegiak dira. Jarduera kopurua eta jarduerok asmatzea **%52,16** emendatu da, eta haietan **parte hartzen dutenena**, berriz, **%27,54**. Literatura irakurtzea eta alfabetaze digitala sustatzea helburu duten jarduerak dira. Irakurketa-klubeko 141 saio egin ditugu, 377 ipuin-kontaketa, eta **Liburu Baby Kluba** programak arrakasta handia izan du, sare osora hedatu baita, 226 saio eta 5.241 parte-hartzaileekin.

Herritarrentzako email bidezko arretaren isla dira liburuak erosteko 364 desideratak eta zerbitzuari buruzko 117 galderak.

Funts bibliografikoak erosteko, 432.392 euro gastatu dira, hots, 3,2€ biztanleko, eta 5,18€ bazkideko.

Liburutegiok benetako gardentasunean sinesten dugu. Gure datu guztiak urtero argitaratzen dira paperean, inprimatuta, edonork ikus dezan gure bilakaera.

Eguzkitekak, Kontxako hondartzako liburutegiak arrakasta handia izan du berriro. **Hirukoiztu** egin dira **bisitak**, eta **bikoiztu maileguak**.

Moyua enpresaren laguntzak irekiera ordutegia zabaltzea eta jarduera gehio antolatzea ahalbidetu du.



Ikasgela, Liburutegi Nagusia

Berritasun bat: mahai-jokoak ere sartu dira liburutegira. 49 jolas, familia osoaren heziketa eta formaziorako, sorkuntza eta literatura-zaletasuna sustatzeko. Jarduera berri bat, liburu eta jolasak biltzen dituen asteen bi goizetan (ostiral eta larunbatetan). Ipuinaren ordua, berriz -udan, egunero-, sendotu egin da.

Bisitariak guztira: 17.013
Batez bestekoa eguneko: 175,16
Maileguak guztira, 3.817
Batez bestekoa eguneko: 36,10
Urgulleko liburutegiak aurreko urteko martxari eutsi dio: 3.400 bisita

Guk diogu liburutegiak badirela udarako ere, eta, beraz, 2018an **Intxaurrondo Kultur Etxeko Liburutegia** irekita egon da abuztuan. Binomio ederra osatzen dute igerilekuak eta irakurketak.

Amundarain liburutegia udal sarean sartu da urtearen hondarrean. Beste liburutegiak bezala kudeatuko da informatikoki. Martuteneko auzo osoari

egiten dio mesede bere sarbide propioa duen kokapen berriak, ez bakarrik Arantzazuko Ama eskolakoei.

Okendo Kultur Etxeko liburutegiak **automaileguko makina eta RFID** sistema estreinatu ditu.



Eguzkitekak



Aitor Ikastola, Liburuka Proiektua

PROIEKTUAK

2018ko proiektu nagusia **DK LIBURUKA** izan da, irakurketa sustatzeko proiektua, eta **oso harrera ona izan du**.

Irakurketari buruzko datuak, sektoreko inkesten arabera, ez dira oso onak. Udal liburutegi-zerbitzutik, alarmismoak eta errezeta liluragarriak alde batera utzita, proiektu zehatzen, lana serio egitearen eta liburuzainen presentakuntzaren aldeko apustua egin dugu.

Liburukak lau ekintza ditu; hiru, ikastetxeei begira daude, eta laugarrena, berriz, profesionali.

1.- Motxila txikia irakurketa sustatzeko ekintza bat da, eta hiru espazio lotzen ditu elkarrekin: **etxea, liburutegia** eta **eskola**; eta Haur Hezkuntzako ikasleei (3-5 urte) eta Lehen Hezkuntzako lehen zikloko (6-7) zuzenduta dago. Astero, ostegunean edo ostiralean, mutiko edo neskato batek bizkarrean hartzen du motxila, eta, heldu batekin batera, liburutegira joaten da.

Han, haur horrek **liburu bat aukeratzeko** du **Motxila txikia** txokotik, eta

etxera eramaten du maileguz hartuta, **familiarekin batera irakurtzeko**. Astelehenean, **eskola** eramaten du liburua, ikasgelan irakurtzeko eta lantzeko.

Parte-hartzaileak: **16 ikastetxe; 121 motxila** banatu ditugu **ikasgeletan, eta 3.025 familia** pasatu dira dagoeneko liburutegietatik.

2.- Irakurle gazteak, Donostiako ikastetxeetako gazteei zuzendutako ekintza: Lehen Hezkuntza (6-11 urte) eta DBHko lehen zikloa (12-13 urte); horiei **udal liburutegietan mailegatzeko dauden liburuak eskaini zaizkie**. **20 ikastetxek** hartzen dute par-

te lehen aldi honetan. Modu berezian diseinatutako **109 kaxa** bidali ditugu: 2.725 liburu banatu ditugu; 25 liburu, batez beste, kaxa bakoitzean.

3.- Itsaspeko bihotzak, literatura-saloia, hiru astez egon zen ikusgai, azaroaren 13tik abenduaren 3ra arte, Konstituzio Plazako Liburutegian, hots, Mandasko Dukearen Aretoan. Ekinbide hori **8 eta 14 urte** arteko ikasleentzat dago pentsatuta, eta Galtzagorri Elkarrekin ekoitzi du. Aitziber Alonso, Mireia Delgado eta Miren Guillot diseinatu dute erakusketa, bi helbururekin: irakurketa sustatzea eta **genero-berdintasuna** lantzea, **euska-**



Motxila Txikia



Motxila Txikia

razko haur eta gazte literatura oinarri hartuta. Erakusketatik 10 ikastetxe, 30 ikasgela eta guztira 750 ikasle pasatu dira. **20 laguneko familia-saio bat.** Erakusketaren osagarri, bisita egiten da Haur Liburutegi Nagusira.

4.- Liburuzaintzako prestakuntza jarraitua: Donostia Kulturako liburuzainek prestakuntza jarraitua jaso dute haur eta gazte literaturan. 2018an, hiru ikastaro eman dira: **Liburuzaina ispiluaren aurrean** (Imanol Mercero eta Mireia Delgado); **Irakurzaletasuna sustatzeko lantegia** (Intza Alkain); **Explorando los materiales de lectura** (Elisa Yuste). **87 parte-hartzaile guztira; 29, batez beste**

Proiektu berriaz gainera, lanean jarraitzen dugu, halaber, haurrak irakurle bihurtzeko. Nabarmentzen direnak: **Liburu Baby Kluba**, hiru urte arteko haurrentzat, eta **Ipuinaren ordua**, 2-4 urte bitarteko haurrentzat. Larunbatetan, **Irakurketa kluba** eskaintzen diegu 6-8 urteko haurrei, **Galtzagoz** irekin elkarlanean; eta ostiraletan, berriz, **Irakurketa digitaleko kluba**, 8-12 urte bitarteko haurrei. Saioetan, batez beste, 20 hurrek hartu dute parte.

Dagoeneko finkatuta geratu da urriko **Ipuin-kontalarien maratokia**; lau saio egun batean, eta 118 parte-hartzaile.

Argitalpenei dagokienez, **sareko orri-markatzailea** nabarmenduko



Ipuinaren ordua

dugu, urtero bezala. **Maite Mutuberria ilustratzailea hautatu da 2018an.** Gainera, **Irakurlee** argitaratzen dugu, irakurketa-gida bat, familia osoarentzako gomendioak biltzen dituena.

Sare sozialen arloan, aldaketa esanguratsua gertatu da. **Liburutegien ahotza** bloga itxita dago, baina bultzaka jarraitzen dugu **Liburu dantza** blogari, non LIBURUKA programari dagokion kategoria berri bat irekiko baita.

Eduki digitalak sortzea da **Wikiliburutegiak** programaren xedea. Batetik, "Euskarazko haur literatura" wikiproiektua; bestetik, liburuzainak

wikiproiektua. 2018an, literatura unibertsaleko 56 erregistro sortu dira, eta horiei dagokien liburuak argitaratu da.

Programari amaiera emateko, ekitaldi bat egin zen Victoria Eugenia Antzokiko Klub aretoan. Shakespeareren sonetoak errezitatu eta kantatu ziren, euskaraz, Juan Garzia Garmendiaren bertsioan, Joxan Goikoetxearen musikarekin.

Euskarazko literatura unibertsalari buruzko erakusketatxo bat sareko liburutegi guztietan: horrek eman zion buru programari. Jarduera hori **Euskararen Eguna**rekin eta **Euskaraldia** kanpainarekin zegoen lotuta.



Haur Liburutegia



Komiki tailerra, Egiako Liburutegia



Okendoko Liburutegia

JARDUERAK

Gure liburutegiak komunitatearen parte dira, eta jarduerak, berriz, gure zerbitzuaren zutabe bat. Mundua irakurleen mundu bihurtzeko utopiak bizi gaitu.

Liburutegien zerbitzuan bi abagune ditugu seinalatuak: Liburuaren Nazioarteko Eguna, apirilaren 23an, eta Liburutegiaren Eguna, urriaren 24an.

2018an, lehen aldiz gure sarean, protagonismoa hartu zuen Munduko Poesia Egunak, zeina martxoaren 21ean ospatzen baita, eta programa berri bat hasi genuen: **Poesialdia**, martxoaren 19tik 26ra. Aste horretan, **DK poesia-saria** eman genuen, eta gurekin izan genituen **Miguel d'Ors, José Mateos** eta **Porto** izeneko jarduera, **Harkaitz Cano** eta **Mursegorekin**.

Liburutegiaren Egunean jolasaren gaia aztertu genuen. **Play again! Jolasa eta liburutegia** egunean, profesional entzutetsuak izan genituen gurekin: Pepe Pedraz, Marina Espasa, Azahara G. Peralta, Andrea Vitorica eta Ana Ordás.

Literaktum literatura-jaialdian, klasisioen sailean, arrakasta handia izan zuen Pio Barojari buruzko literatura-ibilaldiak. Josemari Carrere aktorea eta Eneko Olasagastiren taldea izan genituen gurekin. **Literatur afariak**, Covent Garden-en, 80 lagun bildu zituen *Anna Karenina* eleberriaren inguruan.

Literaturaren bide berrien sailean, berriz, bi saio antolatu genituen. Lehena, **Zergatik idazleak?**, Estibalitz Martínez Díaz de Cerio eta Peru Iparragirrearekin, eta Samara Velte moderatzaile lanetan. Bigarren saioa, **Gazteak eta irakurketa**, Maialen Berasategi, Imanol Epelde eta Elena Oregirekin, eta Uxue Alberdi moderatzaile lanetan. Bi saiook euskaraz izan ziren.

Literatura-solasaldiak edo irakurketa-klubak dira betiere gure programazio finko garrantzitsuenak. Euskarazko solasaldian, Iñigo Aranbarriarekin, 20 lagun izaten dira saioak, batez beste. Gaztelaniazko solasaldian, Amaia Garcíaarekin, 32 lagun biltzen dira; ingelesezkoan, Slawa Grabowskarekin, 15 lagun; eta frantsesezkoan, Miren Garmendiarekin, 25 bat lagun.

Zerbitzutik "irakurketa erraza" bultzatzen dugu, zeina Aita Menni Zentroan egiten baita. Liburuak uzten dizkiegu eta Liburutegi Nagusian biltzen dira.

Liburuaren Egunean, urtero bezala, Gipuzkoako Plazara irten ginen liburu-saltzaileei eta liburu-dendei gure babesa adierazteko. Egun osoan izan genituen jarduerak eta kontzertuak. 2018an, Mary Shelleyren *Frankenstein* argitaratu zeneko 200. urteurrena gogoratu genuen irakurketa librean, eta eguna ixteko, Rafa Ruedaren kontzertua izan genuen.

Vivian Gornickek eta **Eider Rodríguezek** Gipuzkoako liburu-saltzaileen elkartearen saria jaso zuten, Zilarrezko Euskadi izenekoa, eta irakurleekin solasean jardun zuten San Jeronimo kaleko ekitaldi-aretoan. Liburutegierbitzuak babestu egiten ditu literatura-sariak; horregatik, 2018an ere elkarlanean jardun dugu **Kutxa Donostia Hiria Sariekin**, zeinak Antzoki Zaharrean eman baitziren, abenduan. Hona hemen sarituak: antzerkian, Fernando Trías de Bes-en *El trámite* eta Oier Gillanen *Aire ikusezina*; konta-

kizun laburrean, Matías Candeiraren *Moebius* eta Alexander Martínez Iturriaren *Iraumen*.

Poesia eta pentsamendua zikloa giltzarri izan da orain arte gure programazioan. Hamaikagarren poesia-errezitaldia egin genuen musikarekin, Victoria Eugenia Antzokiko Klub aretoan. Parte hartu zutenak: Xuan Bello, Itziar Ancin, Jon Iñaki Lasa eta Juan Manuel Uria, eta Jon Makuso biolina jotzen.

Poesia Orduak zikloa Festak unitatearekin eta Euskal Idazleen Elkartearekin batera antolatzen dugu, eta liburutegi-zerbitzuak literatura-jarduera minoritario bati ematen dion babesaren adierazgarri da. Irailaren 3an Itu bandak *Itzulerak* ikuskizuna eman zuen, Martin Bidaurre, Alazne Arruti Bengoetxea, Paul Beitia Ariznabarreta, Jon Gurrutxaga Urbietaren eskutik. Hilaren 4an, berriz, *Emakume Burugabea*, Antxiñe Mendizabal Aranburu, Nerea Gartzia Gartzia eta Pello Ramirez (musika) hirukotearen eskutik.

Emakume idazleen topaketa azaroaren 7an eta 8an egin zen, eta hori da gure beste apustu bat. Topaketa horretan, nazioartean ezagunak diren emakume idazleen literatura-sorkuntza aztertzen da. **Leonor de Recon-dok eta Pilar Selek-ek literatura-sorkuntzaz jardun zuten.**



Miguel Dor's eta Jose Mateos, Poesialdia



Erakusketa, Liburutegi Nagusia

LIBURUTEGI ZERBITZUA ZENBAKIETAN



FUNTSAK	563.085
SARBIDE LIBREKO FUNTSA	470.183
FUNTS HISTORIKO KATALOGATUA	92.902
FUNTSAK EUSKARRIAREN ARABERA	
LIBURUAK	449.393
CD	36.396
CDROM	2.780
DVD	59.425
BIDEO JOKOAK	1.443
MAPAK	205
MATERIAL GRAFIKOA	3.436
PARTITURAK	8.382
ALDIKAKO ARGITALPENAK	1.495
ORDENAGAILU ERAMAN-GARRIAK	34
EREADER-IPAD	96
FUNTSAK HIZKUNTZAREN ARABERA	
EUSKARAZ	106.425

GAZTELANIAZ	406.948
BESTERIK	49.712
ALTAK	44.955
BAJAK	17.344
BILDUMAREN HAZKUNDEA %TAN	8,26
BILDUMAREN ERABERRITZEA %TAN	7,98
MAILEGUAK	433.973
MAILEGUAK EGUNEKO	1.466
MAILEGUAK EUSKARRIAREN ARABERA	
HELDUENTZAKO LIBURUAK	195.832
HAURRENTZAKO LIBURUAK	107.284
CD	11.984
DVD HELDUAK	66.878
DVD HAURRAK	30.336
CDROM	715

LIBURUTEGI ZERBITZUA ZENBAKIJETAN

ALDIZKARIAK	6.523
MAPAK	1
PARTITURAK	2.184
BIDEO JOKOAK	3.776
EREADER-IPAD	141
ORDENAGAILU ERAMANGARRIAK	5.597
MAHAI JOKOAK	2.722
MAILEGUAK HIZKUNTZAREN ARABERA	
EUSKARAZ	53.065
GAZTELANIAZ	290.719
BESTERIK	28.277
E-LIBURUTEGIKO MAILEGUAK	6.392
FUNTS HISTORIKOAK KONTSULTAK	668
HEMEROTEKA KONTSULTAK	3.659
BISITARIAK	817.172
BISITAK EGUNEKO	2.761


BAZKIDEAK	83.316
HELDUAK	69.118
HAURRAK	13.948
BESTERIK	250
GIZONAK	37.816
EMAKUMEAK	45.245
BESTERIK	255
2018. URTEKO BAZKIDE BERRIAK	4.980
HELDUAK	3.314
HAURRAK	1.542
BESTERIK	124
GIZONAK	2.081
EMAKUMEAK	2.775
BESTERIK	124
2018KO BAZKIDE AKTIBOAK	26.468
HELDUAK	19.692
HAURRAK	6.557
BESTERIK	219
GIZONAK	11.086
EMAKUMEAK	15.157
BESTERIK	225

LIBURUTEGI ZERBITZUA ZENBAKIETAN


INTERNET / CDROM KONTSULTAK	166.926
KZ ARETOETAN	52.061
ARETOAN	48.202
WIFI	66.663
OPAC KONTSULTAK	467.489
WEB KONTSULTAK	253.425
HEMEROTEKA DIGITALE-KO KONTSULTAK	187.273
LIBURU DANTZA KONTSULTAK	2.442

JARDUERA KOPURUA	1.517
JARDUERETARA ETORRITAKOAK	34.188
ERAKUSKETAK	8
AZALERA M2	9007,08
APALAK METRO-LINEALA	7982,23
IRAKURTZEKO GUNEAK	1143


(1) Ez dira kontuan hartu Amundarain Mediatekako funtsak.



Sorrera urtea	Sail historikoa 1874	KONTSULTAK FUNTS HISTORIKOAN	668
	Alderdi Eder 1999	KONTSULTAK HEMEROTEKAN	3.659
FUNTSAK	136.846	BISITA	229.500
SARBIDE LIBREKO FUNTSAK	63.584	BISITAK EGUNEKO	775
FUNTS HISTORIKO SAILKATUA	73.262	ERABILERA PUBLIKOKO ORDENAGAILUAK	38
ALTAK	8.310	EKINTZA KOPURUA	317
BAJAK	900	EKINTZETARA BERTARATUTAKOAK	7.781
MAILEGUAK	108.187	ERAKUSKETAK	3
MAILEGUAK EGUNEKO	365		



Sorrera urtea	1970 (1994)	MAILEGUAK EGUNEKO	108
FUNTSAK	46.167	BISITA	31.506
SARBIDE LIBREKO FUNTSAK	32.344	BISITAK EGUNEKO	121
FUNTS HISTORIKO SAILKATUA	13.823	INTERNET / CDROM KONTSULTAK	4.757
ALTAK	2.971	EKINTZA KOPURUA	210
BAJAK	1.192	EKINTZETARA BERTARATUTAKOAK	5.711
MAILEGUAK	28.140		



Sorrera urtea	2010
FUNTSAK	31.117
ALTAK	3.017
BAJAK	325
MAILEGUAK	42.353
MAILEGUAK EGUNEKO	142
BISITA	58.463

BISITAK EGUNEKO	196
INTERNET / CDROM KONTSULTAK	10.151
EKINTZA KOPURUA	117
EKINTZETARA BERTARATUTAKOAK	3.858
ERAKUSKETAK	4



Sorrera urtea	1987
FUNTSAK	19.334
ALTAK	1.383
BAJAK	435
MAILEGUAK	7.634
MAILEGUAK EGUNEKO	35
BISITA	17.913

BISITAK EGUNEKO	81
INTERNET / CDROM KONTSULTAK	1.845
EKINTZA KOPURUA	26
EKINTZETARA BERTARATUTAKOAK	292



Sorrera urtea	1986 (2006)
FUNTSAK	38.211
ALTAK	3.257
BAJAK	1.195
MAILEGUAK	34.656
MAILEGUAK EGUNEKO	117
BISITA	67.926

BISITAK EGUNEKO	229
INTERNET / CDROM KONTSULTAK	14.910
EKINTZA KOPURUA	116
EKINTZETARA BERTARATUTAKOAK	1.421



Sorrera urtea	1997
FUNTSAK	33.266
ALTAK	2.170
BAJAK	4.956
MAILEGUAK	21.095
MAILEGUAK EGUNEKO	95
BISITA	22.007


BISITAK EGUNEKO	99
INTERNET / CDROM KONTSULTAK	6.696
EKINTZA KOPURUA	82
EKINTZETARA BERTARATUTAKOAK	1.033



ERNEST LLUCH K.E. LIBURUTEGIA (Amara)

Sorrera urtea	2001
FUNTSAK	47.692
ALTAK	2.904
BAJAK	355
MAILEGUAK	34.650
MAILEGUAK EGUNEKO	126
BISITA	55.634


BISITAK EGUNEKO	203
INTERNET / CDROM KONTSULTAK	15.147
EKINTZA KOPURUA	102
EKINTZETARA BERTARATUTAKOAK	1.837



INTXAURRONDOK.E. LIBURUTEGIA

Sorrera urtea	2000 (2011)
FUNTSAK	44.504
ALTAK	3.563
BAJAK	1.792
MAILEGUAK	38.735
MAILEGUAK EGUNEKO	159

BISITA	67.857
BISITAK EGUNEKO	278
INTERNET / CDROM KONTSULTAK	29.124
EKINTZA KOPURUA	86
EKINTZETARA BERTARATUTAKOAK	1.796




Sorrera urtea	1988
FUNTSAK	13.516
ALTAK	1.136
BAJAK	1.576
MAILEGUAK	8.113
MAILEGUAK EGUNEKO	37
BISITA	11.384

BISITAK EGUNEKO	51
INTERNET / CDROM KONTSULTAK	2.973
EKINTZA KOPURUA	72
EKINTZETARA BERTARATUTAKOAK	2.092



Sorrera urtea	1987
FUNTSAK	33.175
ALTAK	1.959
BAJAK	316
MAILEGUAK	17.284
MAILEGUAK EGUNEKO	76

BISITA	31.038
BISITAK EGUNEKO	137
INTERNET / CDROM KONTSULTAK	2.642
EKINTZA KOPURUA	58
EKINTZETARA BERTARATUTAKOAK	1.043



LUGARITZ K.E. LIBURUREGIA (Antiguo)

Sorrera urtea	1993
FUNTSAK	32.936
ALTAK	2.767
BAJAK	417
MAILEGUAK	20.327
MAILEGUAK EGUNEKO	89
BISITA	33.914


BISITAK EGUNEKO	149
INTERNET / CDROM KONTSULTAK	4.872
EKINTZA KOPURUA	60
EKINTZETARA BERTARATUTAKOAK	1.284



OKENDO K.E. LIBURUTEGIA (Gros)

Sorrera urtea	1987 (2004)
FUNTSAK	40.546
ALTAK	3.343
BAJAK	3.019
MAILEGUAK	59.829
MAILEGUAK EGUNEKO	214

BISITA	111.125
BISITAK EGUNEKO	397
INTERNET / CDROM KONTSULTAK	27.796
EKINTZA KOPURUA	132
EKINTZETARA BERTARATUTAKOAK	3.384




URGULL LIBURUTEGIA



Año de creación	1997
FUNTSAK	4.872
ALTAK	148
BAJAK	374
MAILEGUAK	450
MAILEGUAK EGUNEKO	6
BISITA	3.400

BISITAK EGUNEKO	44
INTERNET / CDROM KONTSULTAK	122
EKINTZA KOPURUA	20
EKINTZETARA BERTARATUTAKOAK	380




EGUZKITEKA



Sorrera urtea	2017
FUNTSAK	1.757
ALTAK	974
BAJAK	96
MAILEGUAK	3.817

MAILEGUAK EGUNEKO	41
BISITA	17.013
BISITAK EGUNEKO	187
EKINTZETARA BERTARATUTAKOAK	2.260



Sorrera urtea	2002
FUNTSAK	19.928
ALTAK	1.657
BAJAK	307
MAILEGUAK	6.017

MAILEGUAK EGUNEKO	29
BISITA	48.708
BISITAK EGUNEKO	233
INTERNET / CDROM KONTSULTAK	2.688



Sorrera urtea	2011
FUNTSAK	16.002
FONDO LIBRE ACCESO	10.185
FONDO HISTÓRICO CATALOGADO	5.817
ALTAK	876
BAJAK	52
MAILEGUAK	1.828

MAILEGUAK EGUNEKO	9
BISITA	2.790
BISITAK EGUNEKO	14
INTERNET / CDROM KONTSULTAK	310



CRISTINA ENEKO INGURUMEN BALIABIDEEN LIBURUTEGIA

Sorrera urtea	2006
---------------	------

ALTAK	2.576
-------	-------

BAJAK	108
-------	-----

MAILEGUAK	37
-----------	----

MAILEGUAK EGUNEKO	93
-------------------	----

BISITA	2.520
--------	-------

BISITAK EGUNEKO	7
-----------------	---

INTERNET / CDROM KONTSULTAK	1.924
--------------------------------	-------



AMUNDARAIN MEDIATEKA. ARANTZATZUKO AMA IKASTOLA

Sorrera urtea	2016 (2018)
---------------	----------------

FUNTSAK	4.412
---------	-------

ALTAK	4.412
-------	-------

BAJAK	0
-------	---

MAILEGUAK	765
-----------	-----

MAILEGUAK EGUNEKO	3
-------------------	---

BISITA	4.474
--------	-------

BISITAK EGUNEKO	20
-----------------	----

INTERNET / CDROM KONTSULTAK	1.115
--------------------------------	-------

EKINTZA KOPURUA	
-----------------	--

EKINTZETARA BERTARATUTAKOAK	
--------------------------------	--